

## Leire Bilbao



(Ondarroa, 1978). Zuzenbide ekonomikoan lizentziatua Deustuko unibertsitatean. Bertso munduarekin lotura dauka gaztetatik; txapelketa, plaza eta bertso idatziak utzi eta orain gai-jartzaile lanetan aritzen da.

Hainbat komunikabidetan ibili da kolaboratzaile gisa, hala nola, Euskadi Irratia, *Deia*, eta azken aldian, *Berrian* zutabegile.

Aldizkari ezberdinetan ere idatzi izan du: *Karmel*, *Bolo Bolo*, *Linterna gorria*... Zenbait sari ere jaso ditu bertso eta literatura lehiaketetan, eta han-hemenka beste lan batzuk ere baditu argitaratuak.

*Ezkatak* (Susa, 2006) poesia liburua eta haur literaturaren alorrean *Amonak nobioa du, eta zer?* (Elkar, 2006) liburuak eman ditu argitara. Elea argitaletxeak kaleratutako *Hitzak batzen gaitu* liburuan ere hartzen du parte, beste hainbat idazlerekin batera.



# Tabu afektiboa. Beldurrak eta galderak?

Leire Bilbao

Idazlearen lana bilatze lana da, begietaz harago edo begietaz barrura, hitzekin edo hitzetan bilatzea. Edozer dela ere bilatzera doana, aurkitzean jasotzen duen plazerra baino handiagoa izaten da askotan bilaketaren, deskubrimenduaren prozesua bera. Tabua da aurtengo Galeuscako gaia, tabu afektiboak egokitu zaiguna. Tabuak eta afektuak, bata zein bestea, erdi ezkutuan izaten dira gehiengotan. Hona ez gatoz ezer aurkitu, deskubritu edo azaleratzera... egingo bagenu, tabuak tabu izateari utziko liokeelako, agian.

## Tabua

Tabu hitzaren jatorria Polinesiatik omen dator. Bertako hizkuntzan, ukitu esan nahi du “ta”-k, eta ezetz esan nahi du “pu”-k. Beraz, ez ukitu. Sakratua, debekatua... ukiezina da tabua.

Tabuez, ukitu edo aipatu behar ez den horretaz mintzatzera gatoz. Horretara, ezagutzen al ditugu gure tabuak, ez al daude azpiratuegi... desestali asmo ditzagun? Tabua benetan tabu izango bada, barneratuegi dago azaleratzeko. Beraz, tabuaz beraz baino ez ote gara inkonszienteki bere ingurumariaz hitz egitera mugatuko? Ohartzen ala gara haietaz? Ohartuta ere onartzen al ditugu?

## Afektuak

Nola definitu afektuak? Ez dugu guk bi hitzetan egingo, batzuk obra osoak dedikatu dizkiotenean.

Ukitu ezin ditugun nonbait daudela esan genezake. Hori bai. Tabu dira beraz. Ukiezinak baitira sentimenduak eta ukitu gabe ukitzen gaituzte gainera. Bi aldiz tabu, tabu afektiboak.

Plazerra, gorrotoa, inbidia, sexua, zoriona edo mina... Sadeko Markesak gizakiaren sufrimendutik plazerra atera zuen. Ez gara

hainbesteraino iritsiko. Beldurrengatik, esango nuke. Beldurra baita gure taburik tabuena, tabu guztien azpian dagoena.

## Literatura unibertsala

Literatura unibertsalean badaude tabuen gainean eraikitako obra gogoangarriak:

**Nabokov-en “Lolita”** adibidez. Non adin txikiko (12 urte) neska bat eta bere “tutorea”ren arteko harreman korapilotsua azaltzen den, gizartean neska eredu bat aipatzeko erabilia izan den termino bat sortuz: Lolitak.

Zaila da ulertzen zergatik, gaur eguneko gizartean, oraindik ere “lolitak” diren errudun eta nobelan bi urtez neska “bahituta” eduki zuen gizona (bere amaren maitalea) biktima. Zergatik, bere desioak piztu dituenari errua bota? Tabuak estaltzeko bide bat ote?

**Max Frisch-en “Homo Faber”** da beste etsenplu argigarri bat, Lolitaz harago arakatzen duena. Faber jauna bakarrik hasitako bidaiaria batean bera baino gazteago den neska bat ezagutu eta hasiera bateko tabuak gaindituta, berarekin maitemintzen da. Elkarrekin bidaiaria eta ohea konpartitzen amaitzen dute. Tamalez, destinura iritsi aurretik hiltzen da neska gaztea eta bere amaren ahotik ezagutuko du Faber jaunak, neska gazte eder hura, alaba zuela. Tabu afektiboen gainean eraikitako mataza, Max Frisch-en obra.

**Elfriede Jelinek-en** zenbait obra ere aipa daitezke. **“La pianista/Pianista”** lan ezagunean esaterako, berrogei urtetik gertu dabilen Erika Kohut musika irakasleak, sexu eta afektu harreman nahaspilatsuak izango ditu bere ikasle gazte batekin. Hala ere, oraindik nahasiagoa da, eta tabu afektiboez ari garela interesgarriagoa, bere amarekin daukan harremana.

**“Las amantes/Maitaleak”** obran ere aipatzekoa da nolako ironiaz deskribitzen dituen emakume eta gizonezkoen arteko roll-ak. Edo **“Los excluidos/Baztertuak”** lanean nerabezaroan dauden lagun koadrilaren artekoak eta, nola ez, beraien gurasoekiko duten maitasun-gorroto harremana.

Aipatutako hauek adibide batzuk baino ez dira, erantzun eta ere berean galdera izan nahi duten adibideak, norberak gehiago bilatu ditzan amu izan nahiko luketenak.

## Euskal literatura

Zer gertatzen da euskal literaturan? Zenbateraino ausartzen gara gure tabuak azaleratzen? Hor dago **Miranderen “Haur besoetakoa”**. Horretaz gain zenbat adibide zehatz aurki genitzake?

**B. Atxagaren “Bi anai”** nobelan bada pasarte gogoangarri bat anaia ezgaituak titiak ukitzen dizkionean, bere anaiaren neska-lagunari. Neskaren “oniritziarekin” esan dezakegu, hor azaleratzen diren tabu guztiekin.

Badira izenburutik bertatik, nahita edo nahi gabe tabuak papereratzen dituzten lanak ere. Adibidez:

**R. Saizarbitoriaren “Rossetiren obsesioa” (Erein, 2001)** hitzekin bai baina ekintzekin bere afektuak erakustea kostatzen zitzaion idazlearen kasua.

Saizarbitoriak, tabuak eta literaturari pasarte bat baino gehiago eskaintzen dio liburu honetan. Idazleak, liburuko protagonistak esan nahi dut, halaxe dio pasarte batean: “*idazteko gutxieneko gaitasuna duenarentzat, errazagoa dela izkribuz aritzea. Gauzak aurrez aurre aurpegira bota beharra saihesteko bidea ematen duelako eta batez ere, idatziz ari denak beti esan dezakeelako idatzirikoa asmazioa dela, literatura hutsa.* “Horregatik iruditzen zait –dio hitzez hitz –salbuespenak salbu– koldarrak izan ohi direla idazleak”.

**X. Mendigurenek “Arima enkoniatuak” (Elkar, 2006)**, bere azken lanean sentimenduak nahiz gorputzak sortzen diguten ahalkea ahaztuz, muturreraino eramanez pertsonaiak eta egoerak. Ikasleaz maitemindu den irakasle heldua, gaztetako abenturarik zoroenak elkarri kontatzen dizkieten bi emakume, politika eta larru kontuak nahasten dituen istorioa...

...adibidez.

## Poesia

Narratibako adibideak baino ez ditugu eman orain artean. Zer gertatzen da poesiarekin?

Ez al dugu oharkabe joku bikoitza egiten? *Zilegi al dira tabu poetikoak?*

Narrazioetan pertsonaia literarioak asmatzen ditugu, idazleaz harago doazenak. Hirugarren pertsonaren azalean babesten gara edo lehen pertsona fiktizio batean, eta akaso, pertsonaia literarioa baliatu genezake (egiten dugunean) gure tabuak bere egiteko. Baina zer gertatzen da poesiarekin?

Poetari “zintzotasuna” (eta kakotxen artean diot) eskatzen zaio. Biluztea. Ezkutukoak ateratzea. Nia-ren presentzia. Hirugarren pertsonan idaztean ere, poetaren ahotsa lerro artean bada ere entzutea. Hitz batean, inplikazioa.

Nola ukitu, ukitu ezin den hura?

Poesian eta narratiban, tabuak azaleratzeko bideak berdinak al

dira? Edo ez? Euskal poesian ere gutxinaka bada ere, tabuak hausten goazela esan daiteke.

Esaterako, Miren Agur Meaberren Azalaren kodean, *euria ari duela klitorian*, *Zuokin denokin oheratuko litzateke* Amaia Lasa, Angel Errok *Oda egiten dio zakilari...* Sonia Gonzalezek bere poema amniotikoetan “*gustatzen zait ohera zakila harroturik hurbiltzen denean...*” diosku.

...adibidez.

**Tabuak hausteko baliatu behar genuke literatura?** izan daiteke Galeusca honen galdera nagusienetako bat.

Tabuak hausteko balio al du literaturak? Zenbateraino menperatzen gaituzte geure tabuek?

Sexua eta heriotzarekin zerikusia dute taburik gehienek, baita eguneroko gauzen heriotza txiki horiekin ere. Ahaideen arteko edo ezgaituen arteko sexu harremanak, generoen aurkako biolentziak, masturbazioa, inpotentzia sexuala (baita inpotentzia fisikoa eta psikikoa: mugatuak gaudela jakitea), hilekoa, menopausia, heriotza, depresioa, stressa, gaixotasunak, frustazioak... Nola jarri ordea paperean?

### **Tabua eta afektoak.**

Hitzekin (hitzokin) ez genuke efektu bila joan nahi, afektu bila ez bada. Geure beldurrik behinenez, barrukoenez idaztea suertatzen da zailena. Ez al da beldurra bera taburik tabuena? Beste tabu guztiak estaltzen dituen? Zeintzuk dira beraz, idazlearen beldurrak?

### **Beldurra**

Poza ez dago modan euskal literaturan –esan daiteke–. Pertsonaia alaiak, konplexurik gabeak, gutxi daude. Zailagoa da zorionaz idaztea esango du baten batek. Zoriona ezin da idatzi esango du beste batek. Maitasunaz idazteak ere lotsa ematen digu (maitemina errekurrenteago da literaturan). Horregatik nobela arrosaren hutsunea euskal letretan? Ez gara ur handietan sartuko.

Kalean, ordea, zelan? Galderari *Ondo, oso ondo* erantzuten diogu. Arazoei ihes joan nahi dugu. Literaturan alderantziz. Tristeak, barne amaraunez beteak dira pertsonaia literario gehienak... tabuz josiak.

Literatura, gizartean dauden tabuak paperatzerako erabili behar dela sinestu bagenezake ere, paradoxa! Bai gizartean bai mundu literarioan debekatua dago ahuldadeez, norbere debilidadeez hitz

egitea. Norbere mugak ezagutzearen beldurra. Tabua berriz, taburik tabuena. Tabu guztien azpian dagoena: beldurra.

Euskal literaturan pertsonaiek ez dituzte liburuak zikintzen, gizona ez dira ia inoiz masturbatzen, emakumezkoak zer esanik ez, oso gutxi biluzten dira, ez dira askotan komunera joaten... emakumeek ez dute hilekorik, ezta depilatzen ere... ez dago felaziorik, cunilingusik... eszena erotikoa gutxi daude.

Gizartean bezala, ez-gaituek ez dute bizitza edo inpultso sexualik, adin batetik gorakoek ere ez... Pertsonaia literarioek ez dauka hipotekarik, Ogasunarekin zorrik, gutxi mozkortzen edo drogatzen dira, medizina batzuk hartzeaz salbu...

Badirudi sortu dugun gizarte literarioa, gizarte eredu garria dela. Agintari askok nahi luketena.

## **Mugak**

Mugak haustea omen da idazle ororen ametsa. Muga fisikoak (horretarako daukagu Galeusca), hizkuntzaren mugak eta barne mugak. (tabu politikoak, estetikoak edo afektiboak). Sobera dakigu, mugaturik gaude. Ordea ezagutzen ditugu kanpo mugak, badakigu beraz, zer den hautsi nahi duguna; baina barrukoak? Literaturak eguneroko errutinaz aparte bizitza paraleloak eskaintzen dizkigu. Hiri imajinarioak sortu ditugu, badirudi hala ere, bizi garen gizarteko tabuak exportatu ditugula gure herri literario edo paperezko herrietara. Ezin al gara aske izan guk geuk eraiki dugun paperezko mundu horretan ere? Ez dugu ezer deskubrituko esanez gero, pertsona bera direla presoa eta gartzelako funtzionarioa. Pertsona bera urkatua eta borrarroa. Pertsona bakarra: Idazlea bera.